

## Gizonak eta feminismoa

# Emakumearen askapenak gizon berria behar du

Ilustrazioak Herritarren Eskubideen Karta (1789) ekarri zuen, giza eskubideen lehenengo aldarrikapena, hain zuzen. Olympe de Gouges idazleak “gizon” zioen artikulua bakoitzean “emakume” jarri zuen eta ordukoek ez zuten ulertu, ezta onartu ere. Orain, azkenean, gizonak ere gizarte matxistaren roletatik askatzeko bidea zabaltzeari heldu nahi diote.

**MARIA GONZALEZ**  
Argazkiak: GHIA



GHIA tratu txarren kontrako elkarretaratze batean, Gasteizen.

**FEMINISMOA** XIX. mendeko mugimendu sozialek gorpuztu zuten. Garai hartan, esklabutzarekin amaitzeko mugimenduek AEBetan, eta marxismoak Europan, emakumearen zapalkuntza agerian utzi zuten. Hainbat anderek, orduan, mugimendu horiek euren bizi-baldintzak aldatzeko helbururik ez zutenez, talde berezituak osatu zituzten. Anarkismoak emakumezkoen zapalkuntza bikoitza argiago ikusi zuen eta XX. mendearen hasieran egitasmo libertarioaren zati bilakatu zen. Hala jaso du Maria Ángeles García Marotok *Las mujeres en la prensa anarquista. España 1900-1936* liburuan.

### Gizonen parte-hartzea

“Feminismoak, hasiera-hasieratik, emakume eta gizonen ikuspuntu aldaketaren beharra planteatu zuen”, azaldu du Plazandreak plataformako kide eta UEUko Antropologia sailburu Maider Zilbetik. “Azken batean, elkarrekin

Luis Bonino ikertzailearen arabera, Espainiako Estatuko gizonen %10 baino ez da matxista konbentzitua.

Hala ere, gizonen %2-4 baino ez dira berdintasunarekin konprometitutako gizonak

bizitzeko modu berri batzuk asmatzeko beharrezana azaleratu zuen”. Horregatik, feminismoak gizon-taldeak behar-beharrezkoak dituelakoan dago Zilbeti, “emakumeek euren feminitatea zalantzan jarri eta gero, eguneroko bizitza eta sexu harremanak ulertzeko modu berri hori zabal dadin, gizonak euren bidea egin behar dute-eta”. Hala ere, feminismoak ez du asmatu mezu hori horren argi zabaltzen. Alde batetik, gizonak euren pribilegioak galtzeko arriskutzat hartu zuten feminismoa. Orain, eredu sexistaren ustezko pribilegio horiek euren zer kalte egiten dieten jabetzeaz gain, gizonzkoen askapen mugimendua ere martxan jarri dute.

Luis Bonino ikertzailearen arabera, Espainiako Estatuko gizonen %10 baino ez da matxista konbentzitua. Hala ere, gizonen %2-4 baino ez dira berdintasunarekin konprometitutako gizonak. Berdintasunaren aldeko Arabako Gizonen Taldeko (GHIA) kide



GHIA-ko kideak, Agurainen (Araba) egindako topaketetan.

Ritxar Baceteren ustez, “gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren guztiz kontra azaltzen ez diren gainerako %76-78 hori osatzen duten gizonak berdintasunera erakartzean dago gakoa”. Izan ere, kontra egon ez arren, ez dute berdintasun praktikarik euren bizitza pribatuan. “Esaterako, zaintzaren esparru ludikoak bereganatu dituzte, umeak zaintzen ikus ditzakegu, larunbat goizetan batez ere, egun hori neskalagunak etxea garbitzeko aprobetxatzen duelako”, azaldu du Bacetek. Hortaz, aurreko belaunaldiekin alderatuta, “alde estetikoak aldatu dira, baina ez estrukturalak, emakumeak etxearen zama eta logistika bere gain hartu behar izaten jarraitzen duelako”. Azken batean, albisteak gizon-talde berritasunean datza.

### **Gizonen indarkeria, eredu sexistaren oparia**

Berdintasunaren paradigmara gerturatzeko, gizonak “errudun” hartzen ez dituen diskurtsoa garatu behar dela uste du Berdintasunaren aldeko Arabako Gizonen Taldeko (GHIA) kide Ritxar Bacetek, “gizonak ere kultura matxista pairatu duelako”. Horregatik, genero indarkeria gaitzesteko elkartzen ziren lagunek erabaki zuten maskulinitatea zalantzan jartzen duten gizon-taldeak osatzea. GHIAk berak 2006ko amaieran agraaldia publikoan bere burua ezagutzera eman zuen, aurretik beste sei bat urte lanean aritu eta gero.

Berdintasunaren paradigmara gerturatzeko, gizonak “errudun” hartzen ez dituen diskurtsoa garatu behar da, gizonak ere kultura matxista pairatu duelako

Indarkeria matxista gizonen arazoa ere badela jabetuz, gizarte-planteamendu berriak ekarri nahi dituzte. Lehenengo eta behin, sistema sexistak gizonei esleitzen dien rolak hainbat pribilegio dakarrela dirudien arren, “oinarri-oinarrian biolentzia dago”. Horren adibidea dugu neskalagunari tratatu txarrak ematen dizkion gizona ez dela autodidakta izaten. Bacetek eredu sexistako gizonen hainbat gaitz azpimarratu du: “Zazpi urte gutxiago bizi gara; 18-35 urte bitarteko gazteen arteko heriotzen %75 indarkeria hilketak dira; euren buruaz beste egiten duten lagunen %80 gizonak dira; espetxeko populazioaren %90 gizonen osatua dago...”.

Emakumeek gune publikoak lortzeko legearen beharra izan badute ere, gizonen esparru pribatuak irabazteke dituzte.

Horren oztopo nagusia “gizonen arteko ituna” litzateke: gizonen esparruetan txiste jakin batzuk, berezko tonu batekin, komentario zehatzak... egin ditzaketela sentitzen dute, eta gizontasuna beste era batera ulertzen duenak, matxismorik gabe, itun hori apurtzen duela sentitzen du. Berdin autonomiarekin, zaintza bezalako lanak emakumeei dagozkiela ulertzen baitu gizonen arteko itun horrek. Finean, gizonen mugimenduak mundu pribatuan du borroka-lekua.

Taldeetan elkartzeak lan kolektiboa bideratzen du. Horrela, Berdintasunaren aldeko Arabako Gizonen Taldeak (GHIA), adibidez,

Internet baliabide estrategiko moduan erabiltzen du. <http://gizonak.blogspot.com> web-gunea ideiak zabaltzeko erabiltzen dute; baita posta-zerrenda bidez eztabaidak, dokumentuak eta sentiberatze-lana garatzeko ere; azkenik, prestakuntza berezitua lantzen dute, sexualitateari buruzko tailerrak, kasu. Gainerako lana norberak egin beharrekoa da. Esparru horretan, gizonak euren sentimenduen inguruan hausnartzen dute eta ez, lehen bezala, egiten zutenaren inguruan. Aldaketa kualitatibo hori, beraz, esparru pribatua eman da. Jendaurreko agerraldiak indarkeria matxista gaitzesteko erabiltzen dituzte. Elkarretaratze horrek aldatutako paradigmen berri ematen digu: emakumeen askapenean lagun eta euren askapen propioaren lekuko.

### Eredu berri baten alde

Feminismoa eta gizonen askapen mugimendua biak “ezinbestekoak” direlakoan dago Ritxar Bacete. “Berdintasuna ez da gizonak garatutako bidea izan, eta horregatik, emakumeek generoaren auzia planteatzeko beste hizkera bat garatu behar izan dute; feminismitik datozen kontzeptu batzuk onartu eta eredu sexista zalantzan jarrita, gizonak ere geure hizkera garatu ahalko dugu, eta orduan, gizon eta emakumeek elkarrekin eredu zuzenago baten alde egin ahal izango dugu”.

Testuinguru horretan, indarkeria matxistaren aurkako talde mistoak gero eta gehiago dira. Horrek orduan eta gizon gehiagoren parte-hartzearen berri ematen du, elkarrekin bizi eta harremanak garatzeko eredu zuzenago baten alde lanean. “Berdintasuna hobeto bizitzeko estrategia da –azaldu du Bacetek–, eta horrekin emakumeek, gizonak eta gizarteak oro har irabaziko dute”. Maider Zilbetik ere berdintasunak gure bizi-proiektua geurea izatea bermatuko duela gogorarazi digu.

Gizarte osoa aldatzea zaila bada ere, gizarte tradizionalaren ereduari eusten dioten arlo batzuk aldatzea zerbait egitea bada uste du Bacetek. Hala ere, askapenaren azken pausoak egitura ekonomikoak aldatzean etorriko dira. “Emakumeei dagokienez, lanpostu publiko batzuetara heldu ahal izan direla ikus dezakegu (Legebiltzarrean dihardute, adibidez), baina etxeko garbiketarako aritzen direnak emakumezkoak bakarrik dira, gehienak etorkinak”, adierazi du. Gizonak euren ustezko pribilegioei uko egiteko hausnarketa munduko herrialderik aberatsen txiroenekin euren aberastasuna partekatu nahi dutela iragartzea bezain ulergaitza izan daiteke. Eredu sexistak gizon izateari gehiegi eskatzen dio, oso rol indartsua eman dio, baina ez dio bere ahultasuna gainditzeko baliabiderik eskaini nahi izan. Fikziozko gizonak sortu nahi izan ditu. ■

hotela  
*Atxaspi*

Bittiria kalea 24  
31770 LESAKA  
Tel.: 948 637 53  
[www.atxaspi.com](http://www.atxaspi.com)

2008ko martxoaren 9a

ARGIA